

# Langileak ez diren soldatapekoak



ROSER ESPELT ALBA  
EKONOMIALARIA

**D**esberdinkeria, berdintasunik eza, sistema honetan beti hor dagoen gaia da, bai eskuinean, bai ezkerrean. Kausak eztabaidatu daitezke, baina inork ez du zalantzan jartzen mundu osoan igo dela, bereziki azken hamarkadetan. Zeinen oker zebilen Kuznets pasaden mendeko erdialdean baieztatu zutenen herriak garatu ahala, desberdinkeria behera egin beharko zuela. Lanaren errenten atzeraldiaren oinarrian daude aldaketa teknologikoen lan merkatuan eragindako eraldaketa eta desindustrializazioak aurrera egin ahala sindikatuek izandako indar galera. Hau da, kapitalaren eta lanaren errenten arteko desberdinkeria errentaren atzetan.

Nazioarteko joera orokorra gorabehera, pasa den urrian Naiz hedabideak argitaratutako artikuluan Joseba Garmendiak nabarmendu zuen, Espainiako Estatukoarekin alderatuz, Hego Euskal Herriko errentaren banaketa langileen aldekoagoa zela bertako sindikatuen borrokari esker. Halarik ere, errentaren banaketak desberdinkeria gutxiestera eraman gaitzake, finantzarizazioak enpresen dinamikak eta kapitalak ordaintzeko dituen mekanismoak eraldatu baititu. Egun, enpresaburuen

Desberdinkeria ez da konpontzen langileen eskubide eta soldata hobeak beharantz berdinduta, baizik eta enpresen irabazien aurka soldata baxuenak igota

soldaten bidez uztartzen dira akziodunen interesak eta enpresen estrategiak eta, beraz, soldata altuenak ezkutuko dibidendu bezala uler daitezke, kapitalaren errenta bezala. Pertsona aberatsenen errentetan soldatak izan ohi duen pisuak baieztatzen du hori: Euskal Ogasunaren Urteko Txosten Bateratuaren

arabera, aberatsenen errentaren %30-60 soldatetatik datoz.

Soldata desberdintasunaren azterketak haratago joan eta alborapen hori saihesteko aukera ematen digu. Espainiako INEren datuen arabera, 2008tik Hego Euskal Herriko soldaten %10 altuena batezbestekoaren gainetik igo da urtero, eta soldata baxuenek urtero behera egin zuten 2018an, Espainiako Estatuan gutxieneko soldata legez igozten hasi zen arte. Gainera, soldata altuenak inflazioaren gainetik hazi dira, hau da, balio erlatibo eta absolutuetan egin dute gora, eta gainontzeko soldatek geroz eta gutxiago balio dute. Azkenik, batezbesteko soldata ertaina baino gutxiago igo da –gero eta soldata baxu gehiago daudela argi utzita–, baina soldata altuenak gero eta altuagoak dira.

Desberdinkeria ez da konpontzen sektore jakin batzuetako langileen eskubide eta soldata hobeak beharantz berdinduta, baizik eta enpresen irabazien kaltetan soldata baxuenak igota. Baina ikusi dugunez, badira langileak ez diren soldatapeko batzuk, eta soldata horiek murrizteak bai ekar dezakeela kapitalaren eta lanaren errenten arteko desberdinkeria murriztea. ●

## Euskaraz hezi, euskaraz bizi!

